

JARDUEREN XEDEA AZALTZEKO ETA JUSTIFIKATZEKO GIDA

ELKARTE-JARDUEREN PROGRAMA:

Elkartea osatzen duten pertsonen harreman sozialak bultzatzeko elkarte izaerazko talde-jarduera guztiak biltzen ditu. Bi jarduera mota bereizten dira, duten izaeraren arabera:

0542 - KULTUR JARDUEREN ETA GARAPEN PERTSONALEKO JARDUEREN PROGRAMA:

Multzo honetan sartzten dira gaitasun fisiko eta intelektualak ahalik eta gehien mantentzea eta beste trebetasun batzuk -parte-hartzaileak etorkizuneko egoeretan hobeto moldatzeko beharrezkoak- ikasten laguntzea helburu duten jarduerak.

Belaunaldi arteko jarduerak jardueraren **diseinuan eta burutzapenean** belaunaldi ezberdinetako pertsonak **batera aritzea** helburu dutenak dira, ezagutza eta esperientziak trukatzuz, parte-hartzaileentzat eta, horrenbestez, jarduera garatzen den gizarte-ingurunearentzat onura ateratzeko. Jarduerak ez dira belaunaldien artekotzat joko, parte-hartzaileak 60 urtetik beherako pertsonak badira eta lehenago aipatutako helburua betetzeko asmorik ez badago.

• Abesbatza eta koru taldea

Elkartean sortutako koru taldea da, entseguak eta emanaldiak hainbat tokitan egiten dituenak. Ez da beste koru batzuen emanaldiak ikustera joatea.

Parte-hartzaile gisa, entseguetan eta emanaldietan parte hartzen duten pertsonen taldea hartuko da aintzat, ez ikusleak.

Irakasleen lana, fotokopiak, partiturak, kantutegiak, koruaren joan-etorriak (emanaldiak egiten diren tokietara), CD-ak ordaintzea egiaztatzen duten fakturekin justifikatuko dira.

• Antzerki taldea

Elkartean sortutako antzerki taldea da, entseguak eta emanaldiak hainbat tokitan egiten dituenak. Ez da antzerki-emanaldiak ikustera joatea (txangoak egitea).

Parte-hartzaile gisa, entseguetan eta emanaldietan parte hartzen duten pertsonen taldea hartuko da aintzat, ez ikusleak.

Irakasleen lana, fotokopiak, libretoak, dekoratuak, jantziak, joan-etorriak (emanaldiak egiten diren tokietara) ordaindu izanaren fakturekin justifikatuko dira.

• Askotariko gaiei buruzko hitzaldi, biltzar eta ikastaroak

Elkartearen egoitzan egiten diren hitzaldi eta ikastaroak (dantza-ikastaroak barne). Elkartek -gaia, edukia eta ordutegia erabakita- antolatzen ditu eta hizlariaren ordainsaria ordaintzeaz arduratzen da; hitzaldiak eta ikastaroak edozein motatakoak izan daitezke. Dena den, multzo honetan ez dira sartuko Kontsumobidek, ezta, Ertzaintzak, La Caixak eta, oro har, kanpo erakunde publiko edo pribatuek antolatzen dituzten jarduerak ere, Enpresen edo Korporazioen Gizarte Erantzukizunarekin edo Gizarte Ekintzarekin zerikusia dutenak,



elkartea ez baita horien antolatzaile; jarduera horiek, gainera, ez diote gasturik sortzen elkarteari.

Jarduera horretan, urtean zehar egindako hitzaldi desberdinetara bertaratutako pertsonen kopurua hartuko da aintzat. Ez dira belaunaldi artekotzat joko, 60 urtetik beherako parte-hartzaileak egon arren.

Hizlariari edo irakasleei ordaintzea edo parte-hartzaileei banatutako material lagungarria erostea egiaztatzen duten fakturen bidez justifikatuko dira.

- **Eskulanak egiteko tailerrak**

Elkarteko kide ez diren irakasleek edo elkartekideek elkartearen egoitzan ematen dituzten eskulan tailerrak. Eskulanak edozein teknika eta material mota erabiltzen dituztenak izan daitezke.

Urtean zehar tailerrean parte hartzen duten pertsonen taldea –egiten den tailer mota bakoitzeko– hartuko da aintzat.

Irakasleen lana ordaintzea eta prestatzeko materiala eta tailerrean erabilitako materiala erostea egiaztatzen dituzten fakturen bidez justifikatuko da gastua.

- **Marrazketa, pintura eta argazkilaritza**

Elkartean egiten diren eta gai horiekin zerikusia duten jarduerak, non irakasle batek edo elkartekide batek gaiaren teknika eta praktika azaltzen baititu.

Urteko jardueran parte hartzen dutenen taldea hartuko da aintzat.

Irakasleen lana ordaintzea eta ikastaroa egiteko behar diren materialak, inprimatzeko tinta, akuarelak eta beste batzuk erostea egiaztatzen dituzten fakturen bidez justifikatuko da gastua. Atal honetatik kanpo geratzen dira argazki-kamerak, ordenagailuak, argazkiak errebelatzeko tresnak eta gainerako gastuak, inbertsiotzat hartzen direnak.

- **Irakurri eta idazteko jarduera**

Irakasleek ematen dituzten jarduerak, berariazko ariketen bitartez, parte-hartzaileei irakurtzen eta/edo idazten erakusteko, edo gaitasun horiek hobetzeko.

Taldea hartuko da aintzat, saioen kopuruarekin biderkatu gabe.

Irakasleen lana ordaintzea, material didaktikoa (berariazkoa eta berezia) eta idazteko materialak (koadernoak, orriak, bolalumak eta abar) erostea egiaztatzen dituzten fakturen bidez justifikatuko da gastua.

- **Memoria bizkortzeko eta lotarako arazoekin laguntzeko jarduerak**

Jarduera horietan, irakasleak parte-hartzaileen narriadura kognitiboa saihestu eta loaren kalitatea hobetu nahi du, hainbat ariketa kognitiboren bitartez.

Taldea hartuko da aintzat, saioen kopuruarekin biderkatu gabe.

Irakasleen lana ordaintzea eta erabili behar diren material didaktikoak erostea egiaztatzen dituzten fakturen bidez justifikatuko da gastua.

- **Honako jarduera hauek: yoga, tai chia, pilatesa, erlaxazioa, gorputz-adierazpena eta psikomotrizitatea**

Irakasleek gidatutako ariketa fisikoko jarduerak, aipatu diziplinetako batekin (edo gehiagorekin) zerikusia dutenak.

Taldea (edo taldeak) osatzen duten (dituzten) pertsonak hartuko dira aintzat, saioen kopuruarekin biderkatu gabe.

Irakasleen lana ordaintzea eta ariketak egiteko behar diren tresnak erostea egiaztatzen dituzten fakturen bidez justifikatuko da gastua.



- **Honako jarduera hauek: soinketa, agerasia, aerobica eta gernu-inkontinentziaren prebentzioa**

Irakasleek gidatutako ariketa fisikoko jarduerak, aipatu diziplinetako batekin (edo gehiagorekin) zerikusia dutenak.

Taldea (edo taldeak) osatzen duten (dituzten) pertsonak hartuko dira aintzat, saioen kopuruarekin biderkatu gabe.

Irakasleen lana ordaintzea eta ariketak egiteko behar diren tresnak erostea egiaztatzen dituzten fakturen bidez justifikatuko da gastua.

- **Eguneroko bizimodura egokitutako teknologia berrien tailerrak:**

- Sakelako eta haririk gabeko telefonoen, telekomandoen eta antzeko gailuen erabilera

- Linea zuriko etxetresna elektrikoek, gas-galdaren eta antzekoen erabilera

Adinekoei eguneroko bizitza, komunikatzea eta informazioa eskuratzea errazteko teknologia berriak baliatzen dituzten tresnak behar bezala erabiltzen erakusteko ikastaroak, irakasle gazteekin edo adinekoekin.

Ikastaroan parte hartzen dutenen taldea hartuko da aintzat.

Irakasleen lana ordaintzea egiaztatzen duten fakturen bidez eta/edo parte-hartzaileei banatzen zaien materialaren fotokopien bidez justifikatuko da gastua.

- **Arlo horri dagozkion beste jarduera berritzaile batzuk**

Aurreko multzoetan sartzen ez diren jarduerak, programako helburu bera dutenak. Definizio laburra eman behar da.

GARRANTZITSUA:

Ez dira diruz laguntzeko modukotzat joko proiektu edo jardueraren izaerarekin eta garapen normalarekin zerikusirik ez duten eta horretarako beharrezkoak ez diren gastuak. Ez da justifikatuko sariak eskudirutan ematera bideratutako gastua.

Programa honetatik kanpo geratzen dira honako hauek: diru-emariak, dohaintzak, babesak eta dohainik emandako beste edozein ekarpen ekonomiko.

Programa honetatik kanpo geratzen dira honako jarduera hauek: podologia, ile-apaintzea, tentsioa hartzea, janaria etxeetara banatzea eta kideentzako antzeko zerbitzuak.



0543 – JOLAS-JARDUEREN PROGRAMA:

Multzo honetan sartzen dira aisialdiko denbora betetzea helburu nagusi duten jarduerak, giro ludiko lasai batean berdinen arteko harremanak sustatzen dituztenak, horrela parte-hartzaileen harreman-ahalmena ahalik eta bizien gordetzeko.

Egiten den jarduera bakoitzari buruzko datuak betetzeko, honako zerrenda honetatik hautatu behar da, eta gero, gainerako datuak bete:

- **Dantzak**

Elkarteak antolatzen dituen dantzaldiak, zuzeneko musikarekin zein musika-ekipoekin.

Urtean zehar antolatutako dantzaldi bakoitzean parte hartu duten pertsona guztiak hartuko dira aintzat.

Gastua musika-taldeei eta DJ-ei ordaintzea edo musika diskoak (CD-ak) eta giro-dekorazioa eta antzekoak erostea egiaztatzen duten fakturen bidez justifikatuko da.

- **Egun bateko txangoak**

Elkarteak antolatutako bidaia laburrak, egun berean joan eta itzultzeko. Jarduera horien multzoak barnean hartzen ditu bisita gidatuak hirietan, fabriketan, museoetan, antzerkia edo opera ikusteko irteerak eta abar. Ez dira diruz laguntzeko modukotzat joko ibilaldi komertzialak, elkarrekin gastuen zati bat (kuotak ordaintzea eta abar) eta kudeaketa bere gain hartu arren.

Bisitan/txangoan parte hartzen duten pertsonen kopurua hartuko da aintzat, jatetxe mahaikoak edo tokiak bisitatzeko sarrerak zenbatuz.

Autobusa, jatetxea, gidari-zerbitzua, intereseko guneak bisitatzeko sarrerak edo txangoa antolatzeko kontratatu den bidaia agentzia ordaintzea egiaztatzen duten fakturen bidez justifikatuko da.

- **Ibilbideak eta mendiko ekintzak**

Urtean zehar antolatzen diren mendi ibilaldiak, gidari-zerbitzuarekin edo halakorik gabe.

Irteera bakoitzean bilduko diren pertsonak hartuko dira aintzat.

Garraio-gastuak, Barik txartelean egindako errekareruak, hamaiketakoak, kontratatutako gidari-zerbitzuak eta jarduerak eragin ditzakeen istripuak estaltzeko aseguru bereziak ordaintzea egiaztatzen duten fakturen bidez justifikatuko da.

- **Txapelketak eta lehiaketak**

Edozein motatako txapelketak eta lehiaketak izan daitezke: karta, domino, xake, igel-toka, dardo, billar txapelketak, baita argazki-lehiaketak, literatura, pintura edo mozorro-lehiaketak eta abarrek ere.

Egingo den txapelketa eta lehiaketa bakoitzean parte hartuko duten pertsonen kopurua hartuko da aintzat (pertsona batek txapelketa batean baino gehiagotan har dezake parte eta horietako bakoitzean zenbatuko da).

Lehiaketa egiteko behar diren materialak (kartak, domino, dardoak...) eta emango diren trofeoak eta sariak (janari produktuak izan daitezke) erostea egiaztatzen duten agirien bidez justifikatuko dira.

ESKUDIRUTAKO SARIEN GASTUA EZ DA JUSTIFIKATUKO



- **Bingoa**

Bingoan jokatzeko jarduerak, sariekin zein saririk gabe.

Jardueran urtean zehar parte hartzen duen taldea hartuko da aintzat.

Ordaindutako bingo-kartoen eta emandako sarien bidez justifikatuko dira.
ESKUDIRUTAKO SARIEN GASTUA EZ DA JUSTIFIKATUKO

- **Ospakizunak eta ermandade-bazkariak**

Egingo diren ospakizun guztiak jasoko dira atal honetan: *lunch*, askariak, omenaldiak eta abar; kide guztiei zuzenduta egon behar dute, inola ere ez Zuzendaritza Batzordeari bakarrik.

Jarduera bakoitzean parte hartzen duten pertsona guztiak hartuko dira aintzat.

Janaria erostea, catering edo jatetxea kontratatzea eta autobusez egin behar diren joan-etorriak ordaintzea egiaztatzen dituzten fakturen bidez justifikatuko da.

- **Arlo horri dagozkion beste jarduera berritzaile batzuk**

Aurreko multzoetan sartzan ez diren jarduerak, programako helburu bera dutenak. Definizio laburra eman behar da.

GARRANTZITSUA:

Ez dira diruz laguntzeko modukotzat joko proiektu edo jardueraren izaerarekin eta garapen normalarekin zerikusirik ez duten eta horretarako beharrezkoak ez diren gastuak. Ez da justifikatuko bingo, txapelketa eta lehiaketetako sariak eskudirutan ematera bideratutako gastua.

Programa honetatik kanpo geratzen dira honako hauek: diru-emariak, dohaintzak, babesak eta dohainik emandako beste edozein ekarpen ekonomiko.

Programa honetatik kanpo geratzen dira honako jarduera hauek: zozketak, loteriak, otzarak edo janari-loteak. Zuzendaritza Batzordeko kideentzat baino ez diren jolas-jarduerak ere kanpo geratzen dira.



JARDUERA SOLIDARIO ETA KOMUNITARIOEN PROGRAMA

Elkartearen jarduera-eremuko beharrian komunitarioei erantzutera bideratutako ekintzak biltzen ditu.

0545 – JARDUERA SOLIDARIO ETA KOMUNITARIOEN PROGRAMA:

Komunitatearen mesederako edo mendetasun-egoeran edo gizartean desabantaila-egoeran dauden kolektibo zehatzen onurako jardueren multzoa hartzen du barnean, adinekoen egoera, adinekoek gizarteari egiten dizkieten ekarpenak, dituzten beharrianak eta eskubideen aldarrikapena ikusgarri egiteko helburua ahaztu gabe, jarduera horien azken helburua adinekoen bizi-kalitatea hobetzea izanik.

Belaunaldi arteko jarduerak jardueraren **diseinuan eta burutzapenean** belaunaldi ezberdinetako pertsonak **batera aritzea** helburu dutenak dira, ezagutza eta esperientziak trukatzuz, parte-hartzaileentzat eta, horrenbestez, jarduera garatzen den gizarte-ingurunearentzat onura ateratzeko. Jarduerak ez dira belaunaldien artekotzat joko, parte-hartzaileak 60 urtetik beherako pertsonak badira eta lehenago aipatutako helburua betetzeko asmorik ez badago.

- **Izapideak egiten laguntzea**

Elkarteko boluntario taldea, mugitzeko zailtasunak dituzten edo nora jo behar duten ez dakiten auzoko/udalerriko biztanleei laguntzea helburu duena; pertsona horiei lagunduz edo haien izenean kudeaketak egiteko behar diren agiriak eskatuko dituzte.

Laguntza taldea osatzen duten eta elkarteko kide diren pertsonak hartuko dira kontuan. Jardueraren onuradunak ez dira aintzat hartuko.

Boluntarioek izapideak eta/edo kudeaketak egiteko egin dituzten joan-etorrien gastuak honako hauen bidez justifikatuko dira: Barik/Gizatrans txartelean egindako errekarquak, kilometroen gastuei buruzko agiria, erregaiaren faktura, beharrezko fotokopiak eta abar.

- **Etxean, egoitzan edo ospitalean bakarrik dauden adinekoei aldi behin bisita egiteko eta laguntzeko programa (gutxienez, urtean zehar 4 aldiz bisitatzea / laguntzea)**

Elkarteko kide diren boluntarioen taldea; boluntarioek bakarrik dauden pertsonak etxean, egoitzan edo ospitalean bisitatzen dituzte, konpainia egiteko, hizketan aritzeko, kartetan jokatzeko eta abar, egunero jasan behar duten bakardadea arintze aldera; helburu hori kontuan hartuta, urtean gutxienez 4 bisita egin beharko dira.

Bisitak egiteko taldea osatzen duten eta elkarteko kide diren pertsonak hartuko dira kontuan. Jardueraren onuradunak ez dira aintzat hartuko.

Boluntarioek egindako joan-etorrien gastuen bidez justifikatuko dira, Barik/Gizatrans txartelean egindako errekarquak, kilometro kopuruaren egiaztagiria edo erregaiaren faktura aurkeztuz; beharrezkoa ez bada ere, oparitxo bat eramaten bada, horren fakturak ere balio izango du gastua justifikatzeko.

- **Nork bere arazoak ordenatzeko aholkularitza**

Elkarteko kideek aholkuak ematen dizkiete gainerako adinekoei, kideak izan edo ez, dagozkien kontuetan: aurretiatzko borondateak, oinordetzak eta testamentuak, kontratuetan atzera egitea...

Aholkularitzan dihardutenak hartuko dira kontuan, ez onuradunak.



Alde batetik, azalpenak eta beste baliabide batzuetara jotzeko gomendioak osatzeko emandako fotokopiak, eta bestetik, informazio horiek ahalik eta pertsona kopuru handienari ematea ahalbideko asmoz profesionalei egindako kontsultak jasotzen dituzten fakturen bidez justifikatuko da. Elkartearen kontuei eta lokalei buruzko kontsultak (profesionalei egindakoak) kanpo geratzen dira.

- **Gizartean parte-hartzea sustatzeko jarduerak, beste gizarte-erakunde batzuekin elkarlanean**

Atal honek barnean hartzen ditu Bizkaiko Adinekoen Kontseiluaren bilerak, “Bizkaia adin guztientzako lurraldea” proiektuan diharduten toki-erakundeekiko bilerak, baita elkarleen federazioetan egiten diren bilerak ere.

Bilera horietan parte hartzen duten pertsonen taldea hartuko da aintzat, ez egindako bileren kopurua.

Berataratu diren pertsonen egindako joan-etorrien gastuen bidez justifikatuko dira, honako hauek aurkeztuta: Barik/Gizatrans txartelean egindako errekareruak, kilometroen gastuei buruzko agiria, erregaiaren faktura.

ELKARTE EDO FEDERAZIO HORIEN KIDE IZATEKO KUOTAK ORDAINDU IZANAREN AGIRIEK EZ DUTE GASTU HORIEK JUSTIFIKATZEKO BALIO IZANGO

- **Belaunaldien arteko trukea sustatzeko jarduerak: eskolaz kanpokoak ikastetxeetan, jarduerak ludoteka edo gazteen lokaletan, ipuin-kontalariak, ohiko jolasak berreskuratzea eta abar**

Elkartea haur eta gazteentzako baliabideekin koordinatzen da, adinekoen eta haur eta gazteen arteko harremanak bultzatzeko ekintza bat edo batzuk antolatze aldera.

Parte hartu duten pertsonak hartuko dira kontuan, 60 urtetik gorakoak eta beherakoak.

Jarduerak sorturiko gastuen bidez justifikatuko da: fotokopiak, jolas-materialak, garraio-gastuak.

- **Adinekoen elkarteak kudeatzeko ikastaroak**

Zuzendaritza Batzordeari zuzendutako prestakuntza-jarduerak, elkarteekin zerikusia dutenak, hala nola berariazko ikastaroetan parte hartzeari buruz.

Ikastaroan parte hartzen duten pertsonen taldea hartuko da kontuan.

Ikastaroa ematen den tokira joateko eta itzultzeko gastuen bidez justifikatuko dira, honako hauek aurkeztuta: Barik/Gizatrans txartelean egindako errekareruak, kilometroen gastuei buruzko agiria, erregaiaren faktura. Horrez gain, material didaktikoa eta paper-materiala ere justifikatuko da.

- **Baliabide sanitarioekin koordinatzea auzo eta udaletako adinekoen osasuna prebenitu eta hobetzeko kanpaina espezifikokoak egiteko**

Elkarteko lantaldea bere zona/eskualdeko osasun-zentroekin elkartuko da, dagokion eskualde geografikoan bizi diren adinekoek nolako osasun arazoak dituzten jakiteko, eta horrela, berariazko informazio-kanpainak antolatu ahal izateko, autozainketak hobetzen eta ohitura osasungarriak zabaltzen lagunduz, baita Osasun Sailak abian jartzen dituen kanpainak sustatuz ere.

Kanpainak garatzean, ekintzak diseinatzean, eskualdean kartelak jartzean... parte hartzen dutenen taldea hartuko da kontuan.

Boluntarioek egindako joan-etorrien bidez justifikatuko da, honako hauek aurkeztuta: Barik/Gizatrans txartelean egindako errekareruak, kilometro kopuruaren egiaztagiria, erregaiaren faktura; horrez gain, informazio-orrrien fotokopiak, kartelak... erabiliko dira justifikatzeko.



- **Gizarte-baliabideekin koordinatzea gizarte egoerei buruzko kanpaina espezifikoak eta komunikazio-kanpainak egiteko**

Elkarteko lantaldea bere zona/eskualdeko gizarte-zentroekin elkartuko da, dagokion eskualde geografikoan bizi diren adinekoek nolako arazoak dituzten jakiteko, eta horrela, gizarte-zerbitzuak eskuratzea erraztea helburu duten berariazko informazio-kanpainak antolatu ahal izateko, baita Gizarte Zerbitzuen Sailak abian jartzen dituen kanpainak sustatzeko ere.

Kanpainak garatzean, ekintzak diseinatzean, eskualdean kartelak jartzean... parte hartzen dutenen taldea hartuko da kontuan.

Boluntarioek egindako joan-etorrien bidez justifikatuko dira, honako hauek aurkeztuta: Barik/Gizatrans txartelean egindako errekareruak, kilometro kopuruaren egiaztatzea, erregaiaren faktura; horrez gain, informazio-orrien fotokopiak, kartelak... erabiliko dira justifikatzeko.

- **Gizarte-baliabideei problematika sozialeko egoera batzuei buruzko informazioa ematea: Diogenes sindromea, abandonuak, zaintzeko ezintasuna, tratu txarrak...**

Ingurunea behatuko duen taldea sortu nahi da, adinekoek gizartean izan ditzaketen eta Gizarte Zerbitzuek ezagutzen ez dituzten zailtasunak antzemateko, erabiltzaile potentzial horiekin harremanetan jar daitezzen, euren egoera soziala hobetze aldera.

Jarduera egiten duten lantaldea hartuko da kontuan, ez ekintzaren onuradunak.

Inguruko gizarte-baliabideen fakturen bidez justifikatuko da, baita jardueren erregistro-orrien bidez ere. Gainera, boluntarioek joan-etorrietan gastatutakoa justifikatzeko, Barik/Gizatrans txartelean egindako errekareruak, kilometroen gastuei buruzko agiria eta erregaiaren faktura aurkeztuko dira.

- **Arlo horri dagozkion beste jarduera berritzaile batzuk**

Aurreko multzoetan sartzen ez diren jarduerak, programako helburu bera dutenak. Definizio laburra eman behar da.

GARRANTZITSUA:

Ez dira diruz laguntzeko modukotzat joko proiektu edo jardueraren izaerarekin eta garapen normalarekin zerikusirik ez duten eta horretarako beharrezkoak ez diren gastuak. Ez da justifikatuko sariak eskudirutan ematera bideratutako gastua.

Programa honetatik kanpo geratzen dira honako hauek: diru-emariak, dohaintzak, babesak eta dohainik emandako beste edozein ekarpen ekonomiko.



0810 – EGITURAZKO PROGRAMA

Egiturazko programak (0810 kodea) mantentze-gastuetarako diru-laguntzak ematea du helburu, eta honako gastu multzo hauek hartuko ditu barnean:

- Alokairu gastuak: elkartearen egoitzarako lokalen alokairua.
- Funtzionamendu gastuak:
 - ❖ Gastu arruntak: uraren, gasaren eta elektrizitatearen, telefonoaren eta Interneten kontsumo-gastuak, komunitatea eta kontratatutako garbiketazerbitzua.
 - ❖ Beste gastu batzuk: elkarteko egoitzaren erabilerak edo jabetzak, kasuaren arabera, sorturiko zergak, baita ere erantzukizun zibileko aseguruak, eguneroko prentsa, lokalek eta elkartearen ekipamenduak behar dituzten konponketa txikiak, baldin eta higiezinaren balioa handitzen ez badute; ostalaritza- eta janari-zerbitzuen gastuak kanpo geratzen dira.

Alokairua ordaintzea, egindako kontsumoak, prentsa erostea eta aseguruak kontratatzea egiaztatzen dituzten fakturen bidez justifikatuko dira, baita lokalean konponketa-lanak egin dituzten profesionalek igorritako fakturen bidez ere. Konponketak elkarteko kideek eginez gero, beharrezko materialak erostea egiaztatzen duten fakturen bidez justifikatuko da gastua.